



Usurbilgo Udala

2024/09/24

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO IRAILAREN 24AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Ainhoa Arrozpide Landa eta Iratxe Begiristain Otegi.

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Xabat Beloki Seguroola eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

1.- 2024KO IRAILAREN 10EKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2024ko irailaren 10eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- SARIAUNDI BASERRIAN MOLDATUTAKO ETXEBIZITZARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0013).

JOSE MARI ZALDUA URDANPILLETA jaunak, Sariaundi baserrian (Aginaga 51B) moldatutako etxebizitzaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko abenduaren 27an zera erabaki zuen: JOSE MARI ZALDUA URDANPILLETA jaunari, Sariaundi baserrian (Aginaga 51B) etxebizitza moldatzeko obretarako udal baimena ematea.

2023ko urtarrilaren 18an, interesatuak hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko 1.749,24 €-ko fidantza jarri zuen (IE 3-2023).

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	98.565,78 €
Obra amaierako ziurtagiria:	98.565,78 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.457,70 €
	Fidantza (%120): 1.749,24 €

2024ko irailaren 10ean berriz, Tokiko Gobernu Batzarrak zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 27an, JOSE MARI ZALDUA URDANPILLETA jaunari Sariaundi baserrian (Aginaga



Usurbilgo Udala

2024/09/24

51B) etxebizitza moldatzeko emandako obra baimena moldatzea, lehen irabilera baimena eskatzeko aurkeztu beharrezko dokumentuen artetik hauek kenduz:

- Obra berriko deklarazioaren eskrituraren kopia. Bertan, 2/2006 Lurzoruaren Legearen 31.3 artikuluari jarraiki, honakoa jaso beharko da:

Etxebizitza erabilera baratzezaintza edo abelazkuntzako ustiakuntza ekonomikoari edo landa-garapenaren berezko beste erabilera batzuei lotuta mantenduko da, gutxienez 25 urteko epean, eta modu jarraitu eta etengabe. Era berean, baratze- edo abeltzaintza-erabilerei lotuta daudela egiaztatzeko balio duten lurzatiak lotuta geratuko dira baimenduko den eraikuntzari, hirigintzari eta erregistroari dagokienez.

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren alta.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, JOSE MARI ZALDUA URDANPILLETA jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, moldatutako etxebizitzaren (Aginaga 51B) lehen erabilera baimena eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2024ko irailaren 16an lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio txostenak:

38_2022OHAN013

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate andreari

OBRA HANDIAK

**SARIAUNDI BASERRIAREN (AGINAGA 51B) ERDIAN ETXEBIZITZA
MOLDATZEKO OBRA AMAIERA ETA LEHEN ERABILERA ESKAERARI
TXOSTENA**

KOKAPENA: Aginaga 51B, Usurbil.

ESKAERA DATA: 2024ko martxoaren 11

ESKATZAILEA: Nerea Zaldua Cernuda

ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2022-OHAN-013

EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 98.565,78 EURO

OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA: 98.565,78 EURO

HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 1.457,70 €

FIDANTZA (%120): 1.749,24

€



2024ko ekainaren 28an Jose Maria Zaldua Urdampilletak Aginagako Sariaundi baserriaren erdian etxebizitza moldatzeko obra amaieraren dokumentazio osagarria aurkeztu du.

AURREKARIAK

- 2022ko maiatzaren 13an, Jose Maria Zaldua Urdampilleta jaunak Sariaundi baserrian etxebizitza egokitzeko obra baimena eskatu du.
- 2022ko urriaren 5ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak proiektuaren aldeko txostena igorri dio Udalari.
- 2022ko azaroaren 24an interesdunak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2022ko abenduaren 12an udal arkitektoak aldeko txostena eman zuen.
- 2022ko abenduaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak Sariaundi baserrian etxebizitza egokitzeko obra baimena eman zuen.
- 2024ko martxoaren 11n Nerea Zaldua Cernudak Aginagako Sariaundi baserriaren erdian etxebizitza moldatzeko obra amaiera dokumentazioa aurkeztu du.
- 2024ko irailaren 10ean Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 27an, JOSE MARI ZALDUA URDANPILLETA jaunari Sariaundi baserrian (Aginaga 51B) etxebizitza moldatzeko emandako obra baimena moldatzea, lehen Irabilera baimena eskatzeko aurkeztu beharrezko dokumentuen artetik hauek kenduz:

- Obra berriko deklarazioaren eskrituraren kopia. Bertan, 2/2006 Lurzoruaren Legearen 31.3 artikuluari jarraiki, honakoa jaso beharko da:

Etxebizitza erabilera baratzezaintza edo abelazkuntzako ustiakuntza ekonomikoari edo landa-garapenaren berezko beste erabilera batzuei lotuta mantenduko da, gutxienez 25 urteko epean, eta modu jarraitu eta etengabea. Era berean, baratze- edo abeltzaintza-erabilerei lotuta daudela egiaztatzeko balio duten lurzatiak lotuta geratuko dira baimenduko den eraikuntzari, hirigintzari eta erregistroari dagokienez.

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren alta.

TXOSTENA

Aurrekarietan esan bezala, Nerea Zaldua Cernudak Aginagako Sariaundi baserriaren erdian etxebizitza moldatzeko obra amaiera dokumentazioa aurkeztu du lehen erabilera eskatzearekin batera. Eskaerarekin batera aurkeztu dira, besteak beste: Obra Zuzendaritzaren azken ziurtapena, obra amaierako likidazioa, amaitutako obraren argazkiak, planoak, eta instalazio termikoa abiarazteko erantzunkizunpeko adierazpena. Obra amaierako ziurtagiria Luis Alberdi Sudupe arkitektoak eta Eneko Iturbe Rekondo arkitekto teknikoak sinatua dago eta dagokion elkargoak ikus-onetsita dago.

Azken ziurtapenean adierazten denez, esanguratsuak ez diren hainbat aldaketa egin dira obran zehar. Hala nola:



- *La cocina y el estar cambian su posición con respecto al proyecto de ejecución, disponiendo un tabique que separa parcialmente ambas dependencias.*
- *La puerta del pasillo se coloca alineada con el tabique del aseo, aumentando el espacio destinado a estar.*
- *En el aseo se aprovecha parte del espacio ubicado debajo de la escalera, se modifica la posición del lavabo e inodoro y se introduce el urinario previsto en el baño.*
- *En el baño, se elimina el urinario y se modifica la posición del inodoro y el bidé.*
- *La parte inferior de la escalera de acceso a planta primera se aprovecha como trastero, pero sin computar como superficie útil.*

DOKUMENTAZIOAREN EGOKITASUNA: Obra amaierako dokumentazioa teknikari eskudunek sinatua eta dagokion elkargoak ikus-onetsita dago. 2024ko irailean Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia aintzat hartuz, aurkeztutako dokumentazioak obra amaierari dagozkionak barneratzen dituela esan behar da, beraz, ontzat ematen da.

OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA: Obra amaierako azken likidazioa 98.565,78 eurokoa izan da, Exekuzio Proiektuaren aurrekontuko kopuru bera.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza (1.749,24 €) itzultzeko hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztu beharko da.

OBRA BAIMENA BETETZEA: 2024ko abuztuaren 13an bertaratzea egin da eta esan daiteke egikaritutako obrak bat datozela baimendutakoarekin, eta ez dela aldateta esanguratsurik eman baimendutako proiektuarekiko.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraituz, Sariaundi baserrian (Aginaga 51B) etxebizitza egokitzeko obra amaieraren ALDEKO txostena idazten da, eta honako hau proposatzen da:

LEHENA: Sariaundi baserrian (Aginaga 51B) etxebizitza egokitzeko obrari LEHEN ERABILERA BAIMENA ematea.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzari jakinaraztea hondakinen kudeaketari dagokion fidantza itzultzea bidezkoa dela.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinaduraren datan
Udal arkitektoa

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

2024/09/24

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Sariaundi baserrian moldatutako etxebizitzari (Aginaga 51B) lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2023ko urtarrilaren 18an ezarritako 1.749,24 €-tako fidantza (IE 3-2023) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

3.- KALEZARKO ZAPATARI KALEA 4AN KOKATUTAKO GARAJEAN ERABERRITUTAKO TEILATUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0004).

JAVIER ZUBIRIA AYERZA jaunaren ordezkartzan diharduen JULEN ARTEAGA IRIONDO jaunak, Kalezarko Zapatari kalea 4an kokatutako garajearen eraberritutako teilatuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko otsailaren 28an, zera erabaki zuen: Kalezarko Zapatari kalea 4an kokatzen den garajearen teilatua eraberritzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 16.072,91 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 13.576,05 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.366,92 €
	Fidantza (%120): 1.640,30 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, JULEN ARTEAGA IRIONDO jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, eraberritutako teilatuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Era berean, 2023ko martxoaren 25ean hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko jarritako 1.640,30 €-ko fidantza (IE 16-2023) bueltatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea eta zergen kitapena egitea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako



Usurbilgo Udala

2024/09/24

erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Kalezarko Zapatari kalea 4an kokatutako garajeen eraberritutako teilatuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzari jakinaraztea obra amaierako likidazioa 13.576,05 €-koa izan dela, hasierako aurrekontua baino 2.496,86 € gutxiago. EIOZ kitapena burutu beharko da.

HIRUGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2023ko martxoaren 25ean ezarritako 1.640,30 €-tako fidantza (IE 16-2022) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari.

LAUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea, zergen kitapena egin eta fidantza bueltatu dezan.

4.- USURBILGO OIARDO UDAL KIROLDEGIKO HARRERA ETA LAN ADMINISTRATIBO ZERBITZUA ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEARI ONESPENA EMATEA (2024LIRZ0006).

Kontratuaren gaia eta helburua: Usurbilgo Oiardo udal kiroldegiko harrera eta lan administratibo zerbitzua ematea.

Unitate sustatzailea: Kirol saila.

Kontratu mota: Zerbitzu kontratua.

Prozedurari dagokionez

Espediente-mota: Ohiko tramitazioa du.

Esleipena egiteko bidea eta modua: Prozedura irekia eta izapide arruntaren bidez.

Baldintza Orriak: Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak eta Preskripzio Teknikoak doaz.

Araudi aplikagarria

1.- Azaroaren 9ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.

2.- Administrazio baldintza zehatzen orriak eta preskripzio teknikoak.

Txostenak



Usurbilgo Udala

2024/09/24

- Teknikariaren memoria.
- Idazkaritzako lege txostena.
- Kontu-hartzailearen ziurtagiria.

Kontratua esleitzeko eskuduntza

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. eta 2005eko abenduaren 12ko Alkatetzako Dekretua ikusita, kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarra da, kontratazio honek udal aurrekontuaren errekurtsio arruntetik %5etik gorakoa eta %10etik beherakoa denez.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Prozedura irekia arruntaren bitartez Usurbilgo Oiarde udal kiroldagiko harrera eta lan administratibo zerbitzua esleitzeko kontratazio espedienteari onespina ematea.

BIGARRENA: Aipatu zerbitzu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak eta Preskripzio Teknikoen Orriari onespina ematea.

HIRUGARRENA: Udal aurrekontuan 2024 urteko ekitaldiari dagokion 16.611,92 euroko gastua baimentzea hurrengo kontu-sailaren kontura: 1.4300.227.342.00.02.2024 (RCT 1247-2024).

LAUGARRENA: Kontratua erregulazio harmonizatukotzat jo behar denez, lizitazio iragarkia DOUEra bidaltzea eta udaleko kontratatzaile profilean argitaratzea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.